

Uda garaian oporrak eta herriko jaiak



■ **Udal berria
martxan**

■ **Un viaje de
aventuras por
Marruecos**

■ **Agur
Santi, agur**

3

Alkatetza

4

Udal berria martxan

6

Beasain - Urretxu - Durango

8

Centro de día, totalmente reformado

9

Miren Josu Aranbururen
atxiloketaren aurrean

10

2 nuevos proyectos para Urretxu

12

Amets Txuri-urdinak berpizten

14

San Juan Argazkitan

16

Agur, Santi

17

Egunkaria Aurrera

18

Agenda local 21

20

Un viaje de aventuras
por Marruecos

22

Kaleko iritziak

23

Conocer Urretxu

24

Hautzaindegi publikoa

25

Berriak

26

Heriotzak,
Baietz Harrapau!!

27

Kaixo Txiki



Ale honetako laguntzaileak:

Jesus M.ª Alberdi
Jon Aldama
Agurtzane Aramendi
Juan Luis Aranburu
Irene Calvillo
Miren Castillo
Jon Castrillo
Jesus M.ª Etxaniz
Ibon Garmendia
Estitxu Gómez
Pello Gonzalez
Ana Isabel Iturbe
Maider Izagirre
Julene Kristobal
Aitor Sarasua
Jabier Otermin
Kizkitza Ugarteburu
M.ª Carmen Viedma
Bake Epaitegia

AZALEKO ARGAZKIA:

Luis Angel Tellez

ARGAZKIAK:

Luis Angel Téllez
Foto Renedo
Asier Zaldua
Udabe

LEGE GORDAILUA:

SS/678/93

KONPOSAKETA:

Print

INPRIMAKETA:

Iparragirre, S.A.

KOPURUA:

3.300 Ale

.....

KAIXOK ez du bere gain hartzen derrigorrez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



jaso nahi dut etxean
(Urretxun bizi ez direnentzako)

Izen-deiturak

.....

Helbidea.....

Herria.....

Urretxuko kultur etxera bidali

EZIN IZAN ZEN

Gipuzkoa osoak bezalaxe, Urretxuk ere dar-dar egin du Gipuzkoako futbol taldearekin batera, bakatu berria den liga txapelketan egindako denboraldi bikainagatik. Oraindik ere emozio haundiz gogoratzen dugu 81- 82 denboraldian Espainiako liga irabazi zuen taldeak egin zigun bisita; Iparragirre plazan egin zuten geldialdia eta gure koblakari unibertsalari utzi zioten lore sorta; beharbada horregatik espero genuen aurten ere beste garaipen bat lortzea eta orduan bezala ospatzea. Baina oraingoan ezinezkoa izan bada ere, azpimarratzekoa da Gipuzkoa osoak talde honekin duen lotura, ezberdintasunak ezberdintasun batzuk eta besteak elkartzen dituen erakundea baita. Aipatzekoa da gure inguruan ikusi ditugun Errealaren ikurrak, herriko peña berriaren sorrera, urretxuar asko eta asko Vigora joan izana, eta Anoetako azken partidura, zer esanik ez. Aurten ezin izan bada, etorriko dira beste urte batzuk; zalantzarik ez.

Alkatetza

Pello Gonzalez



SOLIDARIOS CON EL SAHARA

Dentro de los proyectos municipales de cooperación, hemos dedicado este año un apartado especial al programa denominado "Vacaciones en Paz" que consiste en la acogida veraniega de niños procedentes del Sahara a través de familias. En concreto son 11 niños/as que ya se encuentran entre nosotros, que participarán activamente de las actividades diseñadas, y sobre todo del cariño y atención de once familias de esta mancomunidad que se han sumado solidariamente con este programa municipal.

Además estos niños que viven una vida con carencia de sus necesidades básicas, serán atendidos en visita médica por el Hospital Comarcal (servicio pediatría), oftalmólogo y dentista y por la Cruz Roja en el apartado de desplazamientos, cuestión que desde estas líneas también quiero agradecer expresamente.

Sin más, desearles una estancia feliz y solicitar a todos los ciudadanos/as colaboración para el cumplimiento de este objetivo.



NUEVA LEGISLATURA Y NUEVA ANDADURA MUNICIPAL

Tras los resultados habidos el pasado 25 de mayo, no tengo por menos que agradecer en primer lugar la confianza depositada de nuevo en mi persona y nuestro grupo EA-PNV. Ello nos da un espaldarazo a nuestra gestión y representatividad, y también, cómo no, una gran responsabilidad, por no defraudar la confianza puesta en nosotros. Nos hubiera gustado que en estas elecciones todas las sensibilidades políticas pudieran haber estado presentes, este es el gran principio de la democracia, y dado que ello no ha sido posible, pensamos que tenemos que articular mecanismos para que todos puedan trabajar en esta nueva andadura municipal. La mejora de la demo-

cracia tiene que venir desde la búsqueda de más democracia y uno de los objetivos que perseguiremos en estos años próximos será el de dentro del respeto a las ideas y a los derechos individuales y colectivos buscar espacios de distensión local que permita un equilibrio y una convivencia entre todos. Eso sí desde el respeto a las mínimas reglas democráticas, fuera de los vaivenes y tensiones políticas, que nos permitan recorrer el camino a la tan deseada normalización política de nuestro País.

Pues bien en estas poco normales circunstancias políticas, inicia su andadura, por desgracia esta nueva legislatura. Pero nuestra trayectoria de trabajo por superarnos cada día, en la búsqueda de mayores cotas de bienestar para Urretxu, hará que persigamos de nuevo organizarnos conve-

nientemente para alcanzar los proyectos que hemos diseñado en nuestro programa de gobierno para los próximos cuatro años.

Así hemos conformado ya un nuevo gobierno municipal liderado por los hombres y mujeres que representamos a la coalición EA-PNV, para poder abordar una multitud de proyectos en los campos de la vivienda, tráfico, empleo, cultura, servicios sociales, educación, juventud, deportes,... etc.

Un ilusionante reto que intentaremos llevar adelante con la ayuda de todos, vecinos, y grupos municipales, para lograr ser un municipio cada vez más innovador, solidario, integrador, abierto, sostenible y equilibrado. Estoy seguro que entre todos lo vamos conseguir.



Udal berria martxan

Ekainaren 14ean, Urretxuko udaletxean udal batzarra berria sortzeaz gain Pello Gonzalez izendatu zen alkate. EA-PNVko zortzi zinegotzi, PSE-EEko hiru, PPko eta EB-IUko ordezkari banarekin osatzen dira hamahiru aukiak, lau urtetako legealdiari ekingo diotenak.

Legez, alkatea izendatzen dene-
tik 30 egunetara batzordeak
osatu behar dira. Horrelakorik
Uztailaren 7an egin zen beste udal
batzar batean. Zeregin banaketa
ezezik udalak beste erakundetan
(ikastetxetan, Secundino Esnaola
Musika Eskola, udal euskaltegian,
Urola Garaiko Mankomunitatean,
Sasieta Mankomunitatean, e.a...) duen ordezkariaren izendapenak

ere egin ziren. Era berean, Gobernu Batzordeko kideak izendatu ziren eta, ondorioz, alkate-ordeena. Pello Gonzalez, Jon Zufiaurre, Itziar Agirre, Jabier Otermin eta Angel Errazu dira Gobernu batzordeko kideak. Udal batek hiru modu erabiltzen ditu erabakiak hartzeko, alkatearen erabakiak, Gobernu Batzordeko erabakiak eta Udal Batzarrenak.

Gobernu batzordea bost zinegotziz osaturik egon arren, Urretxun zinegotzi guztiek dute aukera bertara azaltzeko. Horrez gain, gainontzeko batzordeak ospatzen dira, jende guztientzako irekiak direnak eta Gobernu Batzordera bidaltzen dituzte proposamenak. Hurrengo taulan zehazturik gelditzen da batzorde bakoitzaren presidentea, bilera eguna eta ordua:

Comisión	Presidente	Día y hora
Urbanismo, Vivienda, Obras, Servicios y Medio Ambiente	Pello Gonzalez	Miércoles, 19 h.
Industria, Empleo y Comercio	Bittor Perez	En función de los asuntos a tratar
Acción Social y Sanidad	Itziar Agirre	Miércoles, 19 h.
Educación, Deportes y Juventud,	Jon Zufiaurre	Lunes, 18,30 h.
Cultura, Euskera y Festejos	Jabier Otermin	Jueves, 18,30 h.
Agricultura y Rural	Angel Errazu	Segundo martes del mes en Santa Barbara, 21 h.
Hacienda y Gobierno; Comisión especial de cuentas	Luis Angel Téllez	Lunes, 18:30 h.

Herriko ideologia guztiak

Gobernu batzordeko kideen araberak pasa diren udal hauteskunde hauek “ez dira erabat demokratikoak izan”. “Alde batetik batzuk bizkarzainak eraman behar dituztelako ideologia zehatz batzuk defenditzen dituztelako eta, beste batzuk, ilegaliza-

tuak izan direlako” azaltzen du Pello Gonzalezek. “Horregatik, gure ahaleginak egingo ditugu harremanak errazteko” dio alkateak. Hori dela eta, Herribideko ordezkariak Gobernu Batzordetara eta batzorde desberdinetara proposamenak

aztertzeko gonbitaturik daude eta Udal Batzarretan hitza emango zaie.

Lerro hauen bitartez, herritarrei partaidetzara animatzen zaituztegu, zuen proposamenekin errazago izango delakoan. ■

Jabier Otermin



Zutik ezkeretik eskubira, Ibon Aboitiz (EB-IU), Begoña Pereira (PP), Bittor Perez (EAJ-PNV), Felix Toral (PSE-EE), Angel Errazu, (EAJ-PNV), Luis Angel Tellez (EA), Juan Aztiria (EA) eta Antonio Molina (PSE-EE).

Eserita ezkeretik eskubira, Jabier Otermin (EA), Jon Zufiaurre (EA), Pello Gonzalez (EA), Itziar Agirre (EAJ-PNV), Gemma Zabaleta (PSE-EE).

VALORACIÓN DE LAS ELECCIONES

EA-PNV

Desde la coalición EA-PNV no podemos más que agradecer a los urretxarras la confianza que han vuelto a depositar en nosotros. Los más de 2.000 votos y la consecución de ocho concejales han refrendado nuestro proyecto en tratar de construir día a día un Urretxu mejor para todos.

A partir de ahora nos toca a nosotros abanderar el nuevo reto que suponen estos cuatro años. La experiencia y el buen hacer demostrado por el alcalde, Pello González, unido a la mezcla de juventud, ilusión y preparación de su equipo otorgan una confianza para acometer los proyectos planteados.

La construcción de 400 viviendas, la ejecución de un vial alternativo, el impulso de la figura de Iparragirre a través de la apertura de un Museo, junto a la compra y rehabilitación del Palacio de Ipeñarrieta y del Casco Histórico, serán los ejes principales; sin olvidarnos del desarrollo de aspectos medioambientales, del nuevo edificio para Gainzuri, de la guardería pública, de nuevos servicios para la tercera edad, del plan de normalización del euskara...

Somos conscientes de que las elecciones no se han desarrollado en unas condiciones normalizadas. Por ello, esta coalición facilitará su labor, tanto a los ediles amenazados por ETA como a aquella parte de Urretxu que no ha quedado representada, con la formulación de las iniciativas que consideren oportunas.

PSE-EE

Una vez más, la sociedad vasca ha sido convocada a las urnas, en estas elecciones municipales de 25 de mayo, celebradas en un clima de falta de normalidad política resultado del proceso de ilegalización jurídica de la izquierda independentista y de la "ilegalización" política a la que aboca la práctica de la violencia tanto al Partido Socialista como al Partido Popular. Cuestiones éstas que afectan al fundamento de la democracia. Nada de esto es ajeno a la vida municipal; Pero es urgente extraerla de ese torbellino político para colocar como prioridad política la resolución de los cientos de problemas que aquejan a los ciudadanos de nuestro municipio.

Tras estas elecciones, queremos agradecer a quienes han depositado su confianza en los socialistas vascos, reconocer el triunfo de quienes tienen la responsabilidad de gobernar y reclamar de ellos y de nosotros mismos, el compromiso de hacer del municipio de Urretxu, un Ayuntamiento más transparente y mucho más participativo.

Queremos en estos cuatro años, trabajar pensando en el futuro y no en el presente que nos atenaza, buscar espacios de diálogo sin exclusiones, superar las trabas a la convivencia y no olvidar nunca que somos un partido de izquierda, que defiende que la crisis de la democracia se resuelve siempre con más libertad y más igualdad.

PP

Ahora, que comenzamos una nueva legislatura, considero que es un buen momento para analizar la que finalizó el pasado 25 de mayo, y plantear algunos objetivos para la que iniciamos.

Tengo que decir que estos cuatro años han supuesto para mí una buena experiencia. Estoy satisfecha con la actividad municipal y por ello he vuelto a presentarme para esta nueva andadura, con el bagaje de lo aprendido.

De todos modos me gustaría disponer de más medios para atender a mi responsabilidad municipal. Quiero fomentar la proximidad del vecino con su concejal. Es básico que los representantes de los vecinos contemos con medios para atender sus necesidades. La actividad municipal no sólo la ejerce el gobierno municipal, también es misión de la oposición, y me gustaría contar con los instrumentos necesarios.

Además de fomentar la proximidad de los habitantes de Urretxu a sus representantes, en estos cuatro años, a mi entender las actuaciones del Ayuntamiento deben prestar una especial atención a la resolución de problemas como el del aparcamiento, a la mejora del servicio de asistencia domiciliaria y a resolver la carencia de una guardería pública en nuestro pueblo. Desde el PP impulsaremos iniciativas en esta dirección.

No quiero finalizar sin agradecer a mis convecinos la confianza que han vuelto a depositar en el Partido Popular, que ha hecho posible que nuevamente estemos representados en el Ayuntamiento de Urretxu.

HERRIBIDE

Herribidek lorturiko 692 bozen balorazioa, boz emaleen %16.4, izugarri positiboa da, kontutan izanik hauteskondeetara guztiz baldintza antidemokratikotan aurkeztu behar izan duela. Eragozpen eta zailtasunak ugari: plataformaren ilegalizazioa, ertzaintzaren jazarpena eta errepresioa, material konfiskatze eta identifikazioak, kaleko ekintza elektoral eza, korreo-zoko bozka eza... 692 bozek legitimatzen gaituzte herriko ordezkari izateko eta Udaletxean bi zinegotzi izateko. Beren burua demokratizatzen duten alderdi horiei, Urretxuko herritarren borondatea onartu eta datozen lau urteetan, herriak aukeraturako gure bi zinegotziak errespetatu ditzaten eskatzen diegu. Herriaren nahia betetzea bezain sinplea da. Ekainaren 14an, udal ordezkariaren kargu hartzean, ez zegozkien karguak ez zituzten hartu eskatu genien. Berritoren ere, maiatzaren 25ko hauteskundeetan bezala, iruzur egin zitzaion herriaren erabaki eta nahia, Herribideren udal ordezkariak baztertu. Ez zituzten demokraziaren oinarriko baldintzak errespetatu, espainiar lege arrotz eta faxista onartuz.


Azkenik, gure boz emaleei, horren egoera zailean eginiko esfortzua eta izandako duintasuna eskertzea baino ez zaigu gelditzen. Guzti honek, Urretxuren alde lan egiten jarraitzeko animatzen gaitu eta aurrerantzean Urretxutik nazio eraikuntzan jarduteko deialdia egiten dugu. Datozen urteetarako konpromisoa daukagu Urretxurekin eta beteko dugu.



GI-632: Beasain

Jakina da gure herriek Beasain-Durango errepidearen beharra dutela. Horregatik, etengabe eskatu izan da obrak azkar egitea, autobide sekzioan (4 errei), Bergararaino. Beasain eta Alegi bitarteko zatia proiektu horren erakusgarri dugu, eta datorren udarako Alegitik Eitzara bitarteko zatia ikusteko aukera izango dugu. Hortik aurrera, Eitzatik Bergarara bitartekoa geratuko litzateke; azken zati horren eraikuntza proiektua ikusgai daukagu udaletxeko atarian joan zen ekainaz geroztik, hain zuzen ere horren aurkako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

- 3 bailara lotuko ditu: Oria, Urola eta Deba.
- Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko zeharbide nagusia izango da.
- Hiru zatitan egingo da:
 - 1.- Zumarraga hegoaldeko saihasbidea (Eitza eta Aparizio auzoko bidegurutzea batuko ditu, tunel eta bidezubi baten bidez)
 - 2.- Bergara-Antzuola
 - 3.- Antzuola-Urretxu (Deskargako tunelaren bidez)



Ezgarri tekniko nagusiak

- 10 kilometroko ibilbidea.
- Bina erreiko 2 galtzadako sekzio tipoa luzera guztian.
- 2 tunel: Deskarga: 620 m. eta Zumarraga 900 m.
- 6 zubibide: bi 250 metro baino gehiagokoak, Ipurrietakoa eta Antiguakoa.
- 3 gaineko pasabide.
- 4 azpiko pasabide.
- Obrak egiteko aurreikusitako epea: bi urte eta erdo.
- Zenbatetsitako aurrekontua 124,58 milioi euro




J.M.^a Sarasola, Antton Jaime eta Pello Gonzalez autobiarren



- URRETXU - Durango

Por todos es conocida la gran necesidad para nuestros pueblos de la obra del corredor Beasain-Durango. Es por ello, que insistentemente ha sido reclamada su pronta ejecución y en sección de autovía (4 carriles), hasta la población de Bergara. De este proyecto es una realidad transitable el tramo entre Beasain y Alegi, y para el verano próximo lo será el que va desde Alegi hasta Eizaga. Restaría el tramo entre Eizaga y Bergara, cuyo proyecto de ejecución se encuentra expuesto en el Ayuntamiento desde el mes de junio, a fin de poder recoger las alegaciones que los afectados consideren oportunas.

- Su trazado unirá los valles del Oria, Urola y Deba.
- Será el eje transversal principal entre Gipuzkoa y Bizkaia.
- Se ejecutará en tres fases:
 - 1.- Variante sur de Zumarraga. (Uniendo Eizaga con cruce de Aparizio Auzoa, a través de un túnel y viaducto.
 - 2.-Bergara- Antzuola.
 - 3.-Antzuola-Urretxu (A través del túnel de Deskarga)



Características técnicas principales

- 10 km. de recorrido
- Sección tipo de 2 calzadas.
- 2 túneles: Deskarga: 620 m. y Zumarraga 900 m. de longitud
- 6 viaductos: 2 de los cuales superan los 250 metro Ipurrietea y Antigua.
- 3 pasos superiores.
- 4 pasos inferiores.
- Plazo de ejecución estimado 2 años y medio.
- Presupuesto estimado 124,58 millones de euros.



El Centro de Día, totalmente reformado

El 27 de junio volvieron los usuarios del Centro de Día de Urretxu a las antiguas instalaciones que tenían en la subida a Grupo Santa Bárbara y que han sido reformadas en su totalidad. De hecho, el Centro de Día de Urretxu era uno de los más antiguos de Gipuzkoa, fue el segundo centro en abrir sus puertas a los ciudadanos. Por lo tanto, tras tantos años de servicio, necesitaba un arreglo de sus instalaciones.

Además, uno de los objetivos del gobierno municipal al llevar a cabo esta reforma era separar la ubicación del Centro de Día y Hogar del Jubilado, que hasta ahora compartían algunos espacios. De esta manera, también se han ampliado las plazas de los usuarios del centro, que tras la reforma han pasado de ser 16 a 23.

Por lo tanto, en adelante la peluquería y las oficinas del Hogar del

Erabiltzaileek leku zabalagoa, argiagoa eta eroso topatu dute lanen ondoren

Jubilado estarán en la planta baja, junto con el resto de los servicios. Y toda la planta superior, será empleada por el Centro de Día. Se trata de 421 metros cuadrados divididos en tres partes: la sala para actividades polivalentes; el área de higiene de los usuarios, con las correspondientes duchas; y el comedor.

Ekintza ezberdinak egiteko gela, higiene-gelak eta jangela ditu egoitza berriak

Asimismo, se ha instalado una pequeña cocina con un mínimo de

mobiliario necesario por si se necesitara para algo más de lo habitual. Y es que, las comidas diarias vienen preparadas a través de una empresa de catering, por lo que en principio tan solo es necesario servir-las.

La reforma del Centro de Día ha tenido un coste de 216.000 euros de los cuales la Diputación Foral ha pasado a financiar un 82%, 204.000 euros. También se ha hecho un gasto de unos 30.000 euros en mobiliario.

Por lo tanto, los usuarios del Centro de Día disfrutan ya de sus nuevas instalaciones. A través de estas líneas se quiere agradecer al Geriátrico Esteban Orbeago de Zumarraga, por su buena acogida a todos estos usuarios en el tiempo que se han llevado a cabo las obras. ■

Agurtzane Aramendi



Miren Josu Aranburu-ren atxiloketaren aurrean



Aurreko Maiatzaren 23an, Audientzi Nazionaleko epaile den Baltasar Garzonen aurrean Madrilen deklaratu eta gero, Sozialista Abertzaleak alderdiko zinegotzia zen Miren Josu Aranburuk prebentziozko kartzela agindua jaso zuen eta Soto del Realeko espetxean dago ordudanik. Gertaera hauen aurrean eta iazko Apirilaren 29an alderdi berdineko zinegotzia zen Joseba Garmendiaren atxiloketaren ondoren bezala, Urretxuko Udaleko bozeramaileen batzordearen deialdia egin zuen alkateak. EA, EAJ-PNV eta PSE-EEko bozeramaileek parte harturik eta SA eta PPko ordezkariak azaldu ez zirelik, bilera Maiatzaren 26an ospatu zen eta ondoko manifestua aho batez adostu zuten.

Auzitegi Naziona-leko Baltasar Garzon epaileak aginduta, joan zen maiatzaren 23an Udal honetako zinegotzi eta gure lankide Miren Josu Aranbururi behin-behineko espetxeratze zigorra ezarri ondoren, Udal honetako bozeramaile batzordeak honako hau adierazten du:

1.- Seriotasun gutxikotzat jotzen dugula jarduketa politiko-judizial berri hau, egiazko frogetan baino intuizioan oinarrituta dagoela ematen baitu, lehen ere Udal honetako zinegotzi Joseba Garmendiaren atxi-loketarekin gertatu zen bezalaxe.

2.- Miren Josuren errugabetasun-presuntzio eskubidea aldarrikatu nahi dugu, izan ere komunikabide batzuen kondena publikoekin eta Espainiako Estatuako klase politiko garrantzitsu baten aitortpenekin urrututa geratzen dela baitirudi.

3.- Gure ustez horrelako jarduketak desegokiak dira guretzako uko egin ezinezko helburu bat lortu ahal izateko, hau da, herri honetako normalizazio politikoa, balore demokratikoen defentsa, bizitzeko eskubidea eta gizon-emakume guztien askatasuna lortzeko.

4.- Giza-solidaritetea adieraztea Miren Josuren sendiko eta ingurukoei, eta gure esku dagoen guztia egitea goian azaldu-takoa lortzeko.

Era berean eta Miren Josuren senitartekoekin bildu eta gero, Urretxuko Alkatea den Pello Gonzalezek, honako gutun hau bidali zion Baltasar Garzon epaileari ekainaren 2an, espetxeratuaren baldintzako askatasuna eskatzen. Gaur arte inongo erantzunik jaso ez duela konfirmatu dezakegu.

Jon Aldama

CARTA ENVIADA POR PELLO GONZALEZ AL JUEZ GARZON

Señoría:

En mi condición de representante de este municipio otorgado por la legislación vigente en materia de régimen local, tengo a bien enviarle la presente en relación al sumario que Ud. se instruye en el asunto de Udalbiltza, y más concretamente en referencia a Dña. Miren Josu Aranburu Etxeberria, concejal de este Ayuntamiento de Urretxu.

Con el mismo respeto a la legalidad vigente, y desde la suma modestia, por todos los grupos políticos de este Ayuntamiento, se entiende que en la persona de la edil Sra. Aranburu no existe riesgo de fuga o desaparición que impida poder atender a las responsabilidades que se pudieran derivar del sumario precitado, y ello dado que la misma fue citada a declarar ante su Señoría transcurrido un mes desde que se dieran las primeras detenciones en relación al caso, y teniendo en cuenta que compareció voluntariamente. Es así y evidentemente siempre dentro del ámbito de sus competencias, que le solicitamos su puesta en libertad condicionada a la celebración de la vista correspondiente.

Entendiendo que este hecho es positivo para alcanzar algo que todos los grupos municipales anhelamos: la normalización política de nuestro pueblo y por ende de nuestro país, es gracia que esperamos obtener de su Señoría.





2 Nuevos proyectos para Urretxu


El nuevo parking va a estar situado en el grupo Santa Barbara. En este barrio el Ayuntamiento va a crear 31 nuevas plazas de aparcamiento, de las cuales 2 serán para minusválidos. Para realizar la entrada y la salida del aparcamiento se utilizarán el vial superior de Elizalde y el vial inferior del grupo Santa Barbara.


De todos es sabido la necesidad que existe en el pueblo de plazas de aparcamiento. El Ayuntamiento quie-

El Ayuntamiento de Urretxu va a llevar a cabo en los próximos meses dos proyectos que servirán para mejorar el pueblo. Uno de ellos está destinado a crear nuevas plazas de aparcamiento, y el segundo por su parte, renovará la zona del Avenida.

re paliar este problema, y por ello va a crear el nuevo parking. De esta manera, se descongestionará de

vehículos aparcados la carretera que lleva hasta Santa Barbara.





Este proyecto se realizará en los terrenos privados del Ayuntamiento. El consistorio cuenta ya con 3 parcelas y está llevando a cabo las gestiones necesarias para comprar las dos parcelas restantes. Después, la obra saldrá a concurso y se espera que para finales de año el nuevo aparcamiento esté disponible.

El nuevo parking cuenta con un presupuesto de 240.000 euros, es decir, 40 millones de pesetas. La mitad de este presupuesto está financiado por el Gobierno Vasco, debido a que el proyecto se va a realizar dentro del plan Izartu.

Nuevo aspecto para el Avenida

Por otra parte, el Avenida urretxuarra también va a ser testigo de

cambios. Dentro del plan especial del Casco Antiguo, esta calle va a cambiar de aspecto y mejorar sus condiciones.

Las obras comenzarán después de las fiestas de Santa Anastasia y convertirán el Avenida en una zona casi peatonal. Se pavimentará la acera, todo quedará a una misma cota, se eliminarán las barreras arquitectónicas y se crearán nuevas plazas de aparcamiento. Así mismo, se asfaltarán las dos cuestas de acceso al Avenida.

Dentro de estas obras, también se renovará el parque infantil que hay en el Avenida. El quiosco no sufrirá cambios, y se mantendrán los árboles que están en la zona. Eso sí, los que están en mal estado serán sustituidos. Toda esta obra tiene también como objetivo el de suprimir las barreras arquitectónicas. Por

ello, se va a hacer una rampa que unirá la zona del Gazteleku con el Avenida. La rampa estará a la altura de las escaleras de la casa de Irimo, y conectará las dos zonas del pueblo.

El proyecto ya está adjudicado y presupuestado. Las obras comenzarán después de las fiestas patronales de Urretxu y durarán alrededor de 3 meses. Se espera que todo este finalizado para finales de año. Esta obra, que se enmarca dentro del plan Izartu, tiene un presupuesto de 542.000 euros, es decir, 90 millones de pesetas, de las cuales la mitad está financiada por el Gobierno Vasco. ■

Maider Izagirre

BI PROIEKTU BERRI URRETXURENTZAT

Urtea amaitu baino lehen, aparkaleku berria izango du Urretxuko herriak. Santa Barbara auzoan egingo da hori, Elizaldeko goiko kaminoa eta auzoko behekoa aprobetxatuz. Guztira 31 autorentzako kabida izango du aparkalekuak. Proiektu hau Izartu planaren barnean dago eta 240.000 euroko aurrekontua du.

Diru horren erdia Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du.

Avenidak ere aldaketak jasango ditu. Urretxuko Udalak Alde Zaharra eraberritzeko duen asmoaren barnean, kalean aldaketak egingo dira. Kalea adokinatuko egingo da, asfaltu berria jarri eta haurrentzako parke berria sortu beste hainbat gauzen artean.

Oztopo fisikoak ekiditeko aldapa bat ere egingo da Irimo etxearen parean dauden eskaileren inguruan. Proiektu honek 542.000 euroko aurrekontua du, hau da 90 milioi pezetako aurrekontua, eta Izartu planaren barruan dagoenez, erdia Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du.



*Errealak 81-82 denboraldian
Espainiako liga irabazi zuenean
Iparragirreri egin zioten bisita*



Amets Txuri-Urdinak berpizten

Errealzaleok gogoan dugu non geunden eta norekin Errealak lehenengo liga irabazi zuenean. 1981eko apirilaren 26a irratitari pega-pega eginda igaro genuen; Erreala 2-1 galtzen zihoala, kalera irtetea erabaki genuen Juan, Asier eta hirurok; Aldapa tabernan golak sartu ahala arbel batean jartzen zituzten eta Errealaren berdinketa ez zettorrela ikusirik, gure ezinegona zela eta, Gijon Sevillatik geroz eta gertuago zegoela ikusirik, frontoian pilota partiduak ospatzen ari zirenez buelta bat ematera joan ginen. Apenas ikusi genituen pare bat tanto, geure burua beste leku batean baitzegoen. Ederrenatik Aldapara bigarren golaren bila etsita gindoazela, bapatean frontoian salto, txalo eta oihu zaparrada ikusi genituen, Liga guregana etorri zitzaigun une hartan. Korrika eta presaka abiatu ginen Aldapara eta Errealaren bigarren gola ikusi genuen arbelean! Liga geurea zen betiko!

Hamar urte genituen orduan. Udaberri honetan, Errealaren ibilbidea zela eta, berriro ere liga irabazteko ilusioa berpiztu da zaletuengan. Iparragirreri orduan egin zioten bisita-

dia gogoratu dugu eta aurtengoarekin amets egin. Denboraldia amaierara hurbiltzen zen heinean geroz eta jende gehiagok sinisten genuen 'Izarren Liga' irabazteko aukera izango genuenik.

Nabariak izan dira txuri-urdin koloreak gure artean. Batez ere horrelako aukerarik maiz errepikatzen ez direnean eta azkeneko hiru urtetako prozesioak ikusirik.



Musti Taldea

Erreala modan jartzen ari zela, Maiatzean Urretxu-Zumarragako Musti Taldea izeneko 'peña' sortu zen, gaur egun 400 bazkide baino gehiago dituena. Inaugurazio ekitaldian partaidetza ugari bildu zen Kortaberri tabernan eta ondoren Etxeberri jatetxean ospatu zen afarian. Handik hilabete batera, bi autobus bete ziren ekainaren 14an Vigora joateko.

Emaitzaz aparte bidaia bikaina izan zen eta, seguruenik, datorren denboraldian 'peña' honetako zaletuak European zehar ikusiko ditugu.

Emilio Hernandez da Musti Taldearen partaide ezagunetarikoa bat. "Musti izena jarri genion omenaldi eta laguntza gisa eta dudarik gabe, merezi duelako". Taldearen helburua argia da, "Erreala animatzea bai Anoetan bai etxetik kanpo, horregatik, urtean zehar hainbat ekitaldi aurrera eramango ditugu, hitzaldiak, topaketak edo bidaiak, Vigokoa bezalako" dio.

Errealzaleok berpiztu dugu liga irabazteko gai izateak sortzen duen ilusioa eta, zergatik ez esan, tentsioa eta urduritasuna, hainbat jende okerrago igaro baitu orain azkeneko urtetan baino. Futbolak igande arratsaldeak aldatu ditu, udazken hasieratik udaberri bukaeraino, azkeneneko bizpahiru urtetan, tabernak zinema edo futbol aretoak bihurtuz. Gipuzkoan txuri-urdin kolorekin ikusi izan dugu eta gure herrian ere hori somatu izan da. Errealaren banderak leku ugari-



1981. urtean urretxuarrak Gijonen errealaren garaipena ospatzen

tan: Ipeñarrieta kaleko balkoietan, komertzioetan edo tabernetan, Laket-ekoa esaterako.

Vigoko norgehiagoka eta Anoetan ospatu zen azkeneko partidak izan dira zaletuek gehien bizi dituenak. Vigo 700 kilometro baino gehiago egon arren, zaletuak Erreala etxetik at ikusteko 'gosekin' zeuden. Horrelako azken bidaia 1989an izan zen. Orduan Errealak Bartzelonaren aurka galdu zuen Kopako finala Madrilan.

Vigo txuri urdin

Vigoko esperientzia bikaina izan zen, 'peña'ko autobusak ez ezik, hegazkinez eta kotxez ere hurbildu ziren zaletuak. Larunbatean eta igandean txuri-urdin

kamisetak eta ikurrinak Vigoko kaletan zehar nabariak izan ziren. Liga irabazteko aukera zuen Errealak eta errealzaleak ez zeuden prest etxean egoteko, sensazio hori zuzenean bizi nahi izan zuten. Denok dakizue ezin izan zutela lortu baina zaletuen portaera bikaina izan zen. Bi egunetan zehar Erreala animatzen Vigon inongo arazorik sortu gabe, Celtako zaletuekin elkarren ondoan... eta galdu arren, malko ugari isuri arren, jokalariei animatzeko indarrak atereaz.

Hurrengo igandean, Anoetan esperantza printza batzu egonik, Errealzaleak ederki ospatu izan zuten bigarren postua eta datorren urtean Champions League ospetsuan gutxienez sei norgehiagoka jokatuko ditu Errealak.

Laburbilduz, denboraldia bikaina izan da, futbolzaletuek azkeneko urteak ez bezala gozatu egin dute Errealarekin eta horrez gain, futbola hain gustoko ez dutenek ere Errealarekin erreparatu dute.


'Izarren ligari' argi eta ozen utzi dio mezua Errealak, herriko jokalariek, Zubieta lantzen -sei gipuzkoar daude hamaikakoan-, atzerritik maila handiko laguntza eskuratuz eta zaletuen animoekin, erronkei aurrera egin dakiekela, Liga irabaztea oso zaila den arren.

Eta esperientzia honi buruz, beste ondorio ere atera daiteke, gaur egun Erreala da gipuzkoar guztioi bahatzen gaituen gauzarik gutxienetarikoa. Helburuak eta lorpenak ikusirik, emaitza onak izan dira. Baina, zoritxarrez, hori beste kontu bat da. ■

Jabier Otermin



"Musti Taldea"



San 20



*Udaberria
uda, berria,*



*Argazkiak: Jesús M.ª Udabe
Konposaketa: Jon Castrillo*



Juan 2003

*agur t'erdiz;
ongiz etorri.*





Agur, Santi, agur

San Juan bezperako gauean izan zen; hantxe, Gernikako Arbola plazako harmailetan, San Juan suari begira geundela izan genuen Santi Gutierrezen heriotzaren berri. Txistulari taldeak, txalapartariak, soinujoleak eta suaren inguruan bildutako guztiok bat-bateko omenalditxoak eskaini nahi izan genion Santiri, minutu bateko isilune batez, eta txalapartarien "Hileta" eta San Juanen ereserkia txistuaren soinuz entzunez.



Kantabriako San Pedro del Romeral herrixkan jaio zen, eta 71 urte beteko zituen azaroan. Gerra amaitu ondoren, sei urte zituela etorri zen Urretxura, ama eta beste lau seniderek.

Bere gaztaroan, mendizale eta euskaltzale giro jatorrean murgilduta, txistua jotzen ikasteko grina sortu zitzaion. Garai hartan lagun handia zuen Joxe Perez eta biak Ormaiztegira joan eta Paxkual Larrañagaren zuzendaritzapean ikasi zuten txistua jotzen. Astean behin joaten ziren hara, larunbatetan, trenez.

Urretxun dantzari talde bat sortu behar zela, eta txistulari baten beharra izan zutenean, orduan jabetu ziren txistuaren irakaskuntzari ekitearen premiaz; Joxe Perez eta Santi arduratu ziren lan horretaz zenbait bileraren ondoren. Eta horra hor, 1960ko Euskal Jaian, irailean, lehen emanaldi ofiziala eskaini zuen herriko txistulari taldeak.

Txistulari taldearen sortzaile eta zuzendari, txistu irakaskuntzan egindako lan guztiarengatik, 1997ko irailean, Santa Anastasitako kontzertuan, Txistulari Elkartearen zilarrezko domina, Urretxuko Udalaren urrezko domina eta herriaren omenaldi beroa jaso zituen Santik.

Orain, agur esan beharrean gaude. Agur eta eskerrik beroena zeure bizitzan egindako lan bikainagatik. ■

Jexux M.ª Alberdi

Egunkaria Aurrera



2003. urteko otsailaren 20ean, Espainiako Juan del Olmo epailearen aginduz, Guardia Zibilek euskarazko egunkari bakarra itxi zuten, Euskaldunon Egunkaria hain zuten. Operazio honen ondorioz 10 lagun atxilotu zituzten hauek batzuk torturatuak izan zirelarik eta gogora arazi nahi dugu oraindik 3 lagunek preso jarraitzen dutela (Iñaki Uria, Xabier Alegria eta Xabier Oleaga). Gertaeren erantzun gisa berehala mila-ka euskaltzalek kalera egin zuten Egunkariaren itxiera, atxiloketak eta hauek jasan-dako tratu txarrak salatze-ko eta beroaldi horretan arlo ezberdinetako hamaika lagunek salatu zuten bidegabekeria hori. Elkartasuna adierazitako ekimenen artean aipatzekoak izan daitezke martxoaren 13-an egin zen lanuztea, beste herrialdeetatik adierazitako elkartasuna (aipagarria Kataluniako kasua) eta Donostian burututako manifestazio erraldoia, Donostian inoiz ezagutu den handienetakoa.

Horrela "EGUNERO" izenarekin egunkari probisional bat kaleratzea izan zen hurrengo urratsa, proiektu berri eta duin bat martxan jarri bitartean.

Proiektu berri hori gauzatzeko asmoz, Euskal Herriko herri eta bailara guztietan Egunkariaren aldeko herri batzordeak sortu ziren, Zumarraga eta Urretxun ere lanerako prest hainbat lagun agertu zirelarik.

Taldearen helburuak hauek izan dira: Egunkariaren itxiera eta honekin batera jazotako atxiloketak eta tratu txarrak salatzea; Proiektu berriari buruz, informazioa zabaltzea eta dirua lortzea (akzioen bitartez, harpidedunak egiten, material ezberdina saltzen, e.a.).

Helburuak gauzatzeko hainbat ekimen antolatu dira azken hilabeteotan:

- **03-5-10:** "Egunkariaren eguna". Agiri bat adostu zen eta herriko talde eta pertsona esanguratsu batzuek beraien atxikipena adierazi zuten. Ondoren elkarretaratzea eta herri bazkaria egin ziren.
- **03-5-22:** Proiektu berria aurkezteko zuzendaritzako kide batek emaniko hitzaldia eman zuten.
